

HIZKUNTZA KOPURUA

Deskribapena: Munduko hainbat hiri eta lekutako irudiak non jende multzo handiak ikusten ditugun: Shanghai hiriaren argiak, giza mugimenduak eta milaka pertsona kontzertu batean saltoka.

Kike (off ahotsa): Munduan zazpi mila milioi pertsona baino gehiago gaude, zutaz gainera, eta gero eta gehiago gara. Bai hemen eta bai Pekinen, guztiok barre, negar, garrasi eta kantu egiten dugu. Hitz bakar batean esanda, komunikatu egiten gara.

Deskribapena: bihotz bat taupadaka azaltzen da. Bihotzaren inguruan “bihotz” hitza azaltzen da hizkuntza desberdinetan: bihotza, galon, heart, καρδιά, coeur, zemër, сэрца, herz, بلىق, srce, szív, coração, cor...

Kike (off ahotsa): Denon artean ados jar gintezkeen bihotzari bihotza esateko baina giza talde bakoitzak nahi izan duen bezala izendatu du. Horren ondorioz, sekulako hizkuntza aberastasuna dugu eta bihotz horien maitasuna ere oso modu desberdinetan adierazten da.

Deskribapena: Pertsona desberdinek “Maite zaitut” hainbat hizkuntzetan esaten dute. Ondoren, Kike jatetxe txinatar batean dago janaria noiz ekarriko zain, ostatu hauetako dekorazio tipikoaz inguratuta.

Kike: Zuen artean gutxi izango zarete txineraz dakizuenok baina seguru gehienok badakizuela txinera dela munduan gehien hitz egiten den hizkuntza.

Deskribapena: Zerbitzari txinatar bat mahaira gerturatzen da plater bat dakarrela.

Zerbitzaria (txineraz): Arroz frijitu berezia eskatu duzu ezta?

Kike (txineraz): Bai, ni izan naiz.

Deskribapena: Zerbitzariak platera mahai gainean jartzen du.

Zerbitzaria: On egin

Kike: Eskerrik asko!

Deskribapena: Zerbitzariak alde egiten du eta Kikek jateko zotzak hartzen ditu.

Kike: Baina, ze leku du euskarak munduko hizkuntzen artean. Ez dakizuela? Lasai, ez kezkatu. Hori oraintxe deskubrituko dugu eta.

Deskribapena: Kikek leku berberean jarraitzen du eserita, erabat kontzentratuta arroz aleak zenbatuz.

Kike: Sei mila bederatziehun eta laurogeita hemezortzi, Sei mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi eta zazpi mila.

Adituek diotenez, zazpi mila hizkuntza inguru omen daude munduan eta euskara horietako bat da. Ea aurkitzea lortzen dudan!

Deskribapena: Kike plateran dauden zazpi mila arroz aleen artean bila hasten da.

Kike: Aizue, zazpi mila hizkuntza, hizkuntza asko dira, e? Arroz-aleak ez bezala gainera, bakoitza bere berezitasun eta ezaugarriekin; batzuk hizkuntza handiak dira, etorkizunaren beldurrik gabe bizi direnak, beste batzuk, berriz, txikiak, oraina ere arriskuan ikusten dutenak.

Deskribapena: Kikek arroz ale “berezi” bat aurkitzen du.

Hara! Hementxe dugu euskara. Zer iruditzen zaizue, handia ala txikia? Ba, horixe galdetu behar dugu kalean!